



III. ERANSKINA

**2024-2025 IKASTURTEAN IKASLEEN NAZIOARTE-MAILAKO
MUGIKORTASUN-PROGRAMAK DITUZTEN EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEENTZAKO, UNIBERTSITATE-
ZENTROENTZAKO ETA GOI-MAILAKO ARTE- ETA KIROL-
IRAKASKUNTZEN IKASTETXEENTZAKO DIRULAGUNTZAK****NAZIOARTE-MAILAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMETARA
ATXIKITAKO PERTSONEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Ni, _____ (NAN zk.: _____)

ko

ikasten ari den gradua/masterra adierazi

ikaslea naiz _____ unibertsitate/zentroan,

eta nire erantzukizunpean **ADIERAZTEN DUT** laguntza jasotzeko Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditudala, bai eta jasotzen diren gainerako legezko debekuak ere, 2024-2025 ikasturtean ikasleen nazioarte-mailako mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateei, unibertsitate-zentroeiei eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei dirulaguntzak emateko deialdiaren esparruan:

- Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu epai irmo bidez, eta ez naute kondenatu delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzur eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- Ez dut egin borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaerarik, ez naute prozeduraren batean kaudimengabetzat jo, ez nago konkurtsoan deklaraturik, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez nago esku-hartze judizialaren pean edo ez naiz desgaitua izan Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutza-aldia amaitu gabe.
- Ez nago administrazioarekin egindako kontratu baten suntsiarazpen irmoaren eragile deklaraturik.



- Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arazten dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez dira Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.
- Ez dut egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.
- Egunean dut dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
- Ez dut dirulaguntzak jasotzea galarazten didan zehapen-ebazpen irmorik, betiere bat etorri hala xedatzen duen edozein legerekin. Zehazki, ez dut sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor- edo administrazio-bideko zehapenik, dagokion zehapenean ezarritako aldia amaitu gabe.
- Betetzen dut Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat izateko betebeharra, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera (50 langile baino gehiagoko enpresak).
- Ez nago zehatuta Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau- hauste astun edo oso astunengatik, administrazio-bidean ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena bete arte.
- Betetzen dut desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota, kuota hori betetzeko neurri alternatiboak martxan jarri direla egiaztatu gabe.



- Ez dut LGTBI-fobia egin, bultzatu edo sustatu, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Eskatutako laguntza jarduera berberetarako onartutako edo ordaindutako beste laguntza batzuekin bateragarria izanik, ez dut gainfinantzaketarik, hargatik eragotzi gabe etorkizunean helburu bererako jaso ditzakedanak jakinaraztea, laguntza likidatu arteko aldian (deialdiak beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna aurreikusten badu).
- Betetzen ditut indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua). Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jarduera egiten jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Eguna eta sinadura:

Sinadura